# HOGOIGARREN ERAKASPENA



## (I) ELHEKETA: ASTE HUNTAKO SOLAS-GAIA

1- Astearte goizean nor izan zen uhaldearen makurren ikushatzen?
2- Zer utzi zuen Aldudako erretoraren eskuetan?
3- Noiz izanen zaizkie mandoak

## (II) UHALDEA 11

IV

Asteart goizean izan zauku jaun apezpikua, bere bikario general eta sekretarioarekin (1), Bankako mendietan barna, Baigorriko «doiena» lagun (2), *Xotroeneko* semea (3) gidari. Konfirmazione emaiten ari zelakotz bertze herri batzuetan, eta hasi saila ezin utz, zako gure herrirat jitea hoinbertze berandu.

Badugu orai lekuko bat gehiago, eta ez edozoin, uhaldea zer makurrak eginik dagon gain hotan. Harritu da jaun apezpikua. Etzuen harek ere uste hoinbertzekoak zirela. Lurretan beretan bada, gutienetik, ehun mila liberaren makurra; erregebidean, bertze ehunena, lehengo heinerat ezarri orduko. Kondatu gabe erregebideak, urte bat hola egonez, sal-erospenetan ekarriko dituen kalteak, hok nehork ez baitaki oraino zonbatetarainokoak izanen diren. Egun hartan berean itzuli zen diosesako buruzagia, erretoraren eskuetan utzirik diruzko laguntza eder bat.

Bizpahiru egunen buruko, zubi ttipi batzuei esker, mandoak igan ahalko zauzkigu, bainan ez karrosa den ttipienik. Geroxago eginen da hauientzat bide hertsi bat, zonbait hilabeteren doi.

Agian neguko elurrak jin gabe; bertzenaz, Baigorritik bizigailu aski ezin ekarriz Espainiatik are gutiago, xahu ginintazke.

### 33- IZAN - Indicatif Présent - Pluriel

Hek dira = Ils sont

Hek zauzkit = zaizkit = ils me sont
" zauzkizu = zaizkizu = ils vous sont
" zauzko = zaizkio = ils lui sont
" zauzkigu = zaizkigu = ils nous sont
" zauzkizue = zaizkizue = ils vous sont
" zauzkote = zaizkie = ils leur sont

Zuek zaizte = Vous êtes

Zuek (vous) zitzaizkidate = vous m'êtes
zitzaizkiote = vous lui êtes
zitzaizkigute = vous nous êtes
zitzaizkiete = vous leur êtes

## (III) ADITZ IKASKUNTZA

31, 32 - izan zauku, zako berandu.
33 - igan ahalko zauzkigu 34, xahu ginintazke
35 - ez baitaki 36 zaitut, zaituztet.

### 31. IZAN. Régime indirect. Indicatif Présent. Singu.

Hura da = Il est

Hura zaut (à moi) = il m'est : zait
" zauzu (à vous) = il vous est : zaizu
" zako (à lui) = il lui est : zaio
" zauku (à nous) = il nous est : zaigu
" zauzue (à vous) = il vous est : zait
" zakote (à eux) = il leur est : zaie

Ni naiz = je suis

Ni (Moi) nitzaizu (à vous) = je vous suis
" nitzaio (à lui) = je lui suis
" nitzaizue (à nous) = je vous suis
nitzaie (à eux) = je leur suis

Zu zira = vous êtes

Zu (vous) zitzaizkit (à moi) = vous m'êtes
zitzaizkio (à lui) = vous lui êtes
zitzaizkigu (à nous) = vous nous êtes
zitzaizkie (à eux) = vous leur êtes